

**LEHENDAKARITZA,
LEGE ARAUBIDE
ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA**

3027

326/1994 DEKRETUA, uztailaren 28koa, Euskadiko Udal Kontseilua sortzen duena.

Euskal adimnistrazio publikoek, biztanlegoak dituen beharrei dagokien zerbitzu publikoa egin nahiez, emankortasuna eta koordinazioa dituzte beren ihardunaren printzipio gidarizat.

Autogobernu urte hauetan zehar izandako esperientzia dela medio, printzipio horiek betetzeari buruzko iritziak elkarren artean planteiatzeko topaketa-organu baten beharra somatu da behin baino gehiagotan.

Horiek horrela, bidezkotzat jo da, Udal Administrazioa eta gainontzeko euskal administrazioak elkartzeko eta euren arteko lankidetzaren organu iraunkor bat izango den topaketa-gune bat sortzea, era honetan, lurralde, biztanle eta, batzutan, material mailako eremu berdinean lanean ari diren administrazioek elkar ulertzeko egiazko gune bat izango luketela.

Organu aunitza eta, gainera, aholkuemailea eta aztertzailea izango litzateke. Bere funtzionamendu ahalmenak eta sortze-xedea, bat datoz elkarren artean. Bestalde, nabarmen jartzekoa da, antolaketa- eta funtzionamendurako askatasun zabala ematen zaiola, bere gain hartzen duen esperientzia konplexurako beharrezkoa duen autonomia eman nahiaren ondorioa izan delarik hori. Eta gure eraketa politikoa berezia denez, instituzioen arteko adostasuna hartuko du organu horrek, akordioak onartzeko formula gisa.

Azkenik, koordinakuntza eta lankidetzaren bideek, kontseiluak dituen helburuak behar bezala lortzeko, bizkorrak eta malgutasundunak izan behar dutenez, egokitzat jo da, Euskadiko Udal Kontseilua sortzeko bidetzat dekretua erabiltzea.

Ondorioz, udalen ordezkariak entzun ondoren, foru aldundiekin adostasuna lortu denez, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuaren proposamenez eta Eusko Jaurlaritzak 1994ko uztailaren 28an egin zuen bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. atala. - Xedea.

1.- Euskadiko Udal Kontseilua sortzen da, Euskal Autonomi Elkartearen Udal Administrazioaren, Administrazio Orokorren eta lurralde historikoetako Administrazioaren arteko topagune izan dadin, egon daitezkeen beste lankidetzaren organu batzuren kaltetan gabe.

2.- Euskadiko Udal Kontseilua, aholkuemaile eta aztertzaile mailako organua izango da.

**DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA,
RÉGIMEN JURÍDICO
Y DESARROLLO AUTONÓMICO**

3027

DECRETO 326/1994, de 28 de julio, por el que se crea el Consejo Municipal de Euskadi.

Las Administraciones Públicas Vascas en su labor de ofrecer al ciudadano un servicio público acorde con sus necesidades, tienen como bases inspiradoras de su actuación los principios de eficacia y coordinación.

La experiencia acumulada durante los años de autogobierno, ha permitido constatar, en ciertas ocasiones, la ausencia de un órgano de encuentro donde poder confrontar sus pareceres en orden al cumplimiento de los anteriores fundamentos de su actividad.

Por ello, parece aconsejable la creación de un foro que sirva como lugar de encuentro de la Administración Municipal con el resto de Administraciones Públicas Vascas, de modo que se convierta en un órgano de colaboración permanente entre ellas, a fin de propiciar un auténtico marco de entendimiento entre el conjunto de administraciones que proyectan su actividad sobre el mismo ámbito territorial y personal y, a veces, incluso material.

El núcleo de su diseño lo configura como un órgano plural, caracterizado además por su carácter consultivo y deliberante. Su atribución funcional se corresponde con la finalidad de su creación. Cabe resaltar, asimismo, el amplio grado de libertad organizativa y de funcionamiento que se le confiere, producto de la voluntad de dotarle de la autonomía necesaria a la experiencia compleja que acomete. Y, derivada de la especial configuración de nuestra sociedad política, se proclama el consenso institucional como fórmula de adopción de acuerdos.

Y por último, dado que los instrumentos de coordinación y colaboración han de ser ágiles y flexibles para el más adecuado logro de sus fines, se ha considerado idóneo que sea un Decreto la norma de creación del Consejo Municipal de Euskadi.

En consecuencia, oída la representación de los Municipios y de acuerdo con las Diputaciones Forales, a propuesta del Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico, previa deliberación y aprobación del Gobierno Vasco en su sesión del día de 28 de julio de 1994,

DISPONGO:

Artículo 1. - Objeto.

1.- Se crea el Consejo Municipal de Euskadi como foro de encuentro entre la Administración Municipal de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con su Administración General y la de sus Territorios Históricos, sin perjuicio de otros órganos de colaboración que, asimismo, pudieran existir.

2.- El Consejo Municipal de Euskadi tendrá carácter deliberante y consultivo.

2. atala. – Egitekoak.

1.– Honako egiteko hauek dagozkio Euskadiko Udal Kontseiluari:

a) Aurrekontu indarririk izan ez, legeek udalei horien gain eskuduntzak ematen dizkieten gaiak arautuko dituzten eta Euskal Autonomi Elkartearen lege-aurreproiektuei eta lurralde historikoen foru arauari buruzko informeak ematea, era honetan, beren interesen gain eragina izan dezaketen gaitan parte hartzeko udalek duten eskubidea bete ahal izateko.

b) Eusko Legebiltzarrean lege-mailako ekimenetarako eta Batzar Nagusien aurrean arau mailako ekimenak aurkezteko gaitasuna dutenei, udalen interesen gain eragina izan dezaketen Euskal Autonomi Elkartearen legeak eta lurralde Historikoetako foru-arauak aldatzeko proposamenak aurkeztea.

c) Toki mailako autonomiaren aurkakotzat jo eta ekintza publikoko sektore ezberdinak arautzen dituzten Estatuaren xedapenak aztertzea eta eztabaidatzea, agintea duten organuei xedapen horien kontrako murtziloak aurkeztu ahal izateko behar izan dadinean.

d) Udal mailako eta guztientzako eta foru mailako instituzioen artean errekurtsioak banatzeko kontutan hartu beharko liratekeen irizpideei buruzko txostenak Finantza Publikoen Euskal Kontseiluari aurkeztea.

e) Toki mailako entitateen eta Euskal Autonomi Elkarteko instituzioen arteko koordinazio eta lankidetzazko irizpideei buruzko ekimenak, proposamenak, iradokizunak eta txostenak gertatzea. Nahiz bere iniziatibaz, nahiz Euskal Autonomi Elkarteko administrazio publikoek bere pean jarritako gaiari buruz egin ditzake proposamen horiek.

f) Toki administrazioari eskuduntzak eman eta delegatzeari, kudeaketa-lanak izendatze eta zerbitzuetatik iare uzteari buruzko irizpideak aditzera ematea.

g) Udal agintarien peko eremuen gain eragina duten ekintzetarako inbertsio-politikak, oro har izan behar dituen helburu eta lehentasunekiko proposamenak lantzea.

2.– Euskadiko Udal Kontseiluak, gainontzeko legeek eman diezazkieten ahalmenak ere bereganatu ahal izango ditu.

3. atala. – Kideak.

1.– Parte hartzen duten instituzio ezberdinetako ordezkarien kide-kopurua, berdina izango da Euskadiko Udal Kontseiluan.

Parte hartzen duen instituzio bakoitzeko sei ordezkari osatuko dute kontseilua. Kopuru hori aldatu ahal izango da, funtzionamendurako barne-arauak kontutan hartuta.

2.– Dagokion gobernu-organuak izendatuko ditu bai Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorreko ordezkariak eta bai Foru Aldundi bakoitzekoak ere.

3.– Udaletako ordezkarien izendapena, Euskal Autonomi Elkartean indarririk handiena duen elkarteak egingo du.

Artículo 2. – Funciones.

1.– Corresponden al Consejo Municipal de Euskadi las siguientes funciones:

a) Informar sobre los anteproyectos de leyes de la Comunidad Autónoma y de normas forales de sus Territorios Históricos, de carácter no presupuestario, que regulen materias sobre las que la legislación reconoce competencias a los municipios, en orden a hacer efectivo su derecho a intervenir en cuantos asuntos afecten al círculo de sus intereses.

b) Trasladar a quienes tengan capacidad de iniciativa legislativa en el Parlamento Vasco así como de iniciativa normativa ante las Juntas Generales, las propuestas de modificación de aquellas leyes de la Comunidad Autónoma y normas forales de los Territorios Históricos que puedan afectar al círculo de intereses de los municipios.

c) Analizar y debatir la normativa del Estado reguladora de los distintos sectores de la acción pública que puedan estimarse lesivas para la Autonomía Local para, en su caso, proponer su impugnación a los órganos legitimados para ello.

d) Elevar informes al Consejo Vasco de Finanzas Públicas sobre los criterios que, a su juicio, debieran tenerse en cuenta en la distribución de recursos entre el nivel municipal y las Instituciones Comunes y Forales.

e) Formular iniciativas, propuestas, sugerencias e informes en materia de administración local, así como sobre criterios de coordinación y colaboración entre las entidades locales y las instituciones de la Comunidad Autónoma, tanto a iniciativa propia como en aquellos asuntos que facultativamente le sean sometidos por las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

f) Manifiestar su parecer, sobre los criterios de atribución y delegación de competencias a la Administración local, encomiendas de gestión y dispensas de servicios.

g) Elaborar propuestas sobre objetivos y prioridades de carácter general a perseguir en la política de inversiones en aquellas actuaciones que afecten a ámbitos de competencia municipal.

2.– El Consejo Municipal de Euskadi asumirá cuantas otras facultades le sean atribuidas por el resto del ordenamiento jurídico.

Artículo 3. – Composición.

1.– El Consejo Municipal de Euskadi estará formado por igual número de representantes de cada nivel institucional participante.

Su composición, que inicialmente será de seis representantes por cada nivel institucional participante, podrá modificarse atendiendo a sus normas internas de funcionamiento.

2.– Los representantes de la Administración General de Euskadi y de cada una de las Diputaciones Forales serán designados por sus respectivos órganos de gobierno.

3.– La designación de los representantes de los municipios corresponderá a la asociación de mayor implantación en la Comunidad Autónoma Vasca.

4. atala. – Funtzionamendurako arauak.

1.– Kontseiluak berak finkatuko ditu funtzionamendu-arauak.

2.– Kontseiluak berak aukeratuko du Kontseiluko lehendakaria, bertako kideen artetik. Bi urtetarako izango da eta epealdia luzatu ahal izango da.

3.– Euskadiko Udal Kontseiluan akordioak hartu ahal izateko, bertan ordezkariak dituzten instituzio bakoitzeko ordezkarien aldeko botoa izango da beharrezko.

Instituzio maila bakoitzaren botoa, bertako kideen gehiengoaren botoen ondorioa izango da.

5. atala. – Lankidetzak.

Euskadiko Udal Kontseiluak, bertan ordezkariak dituzten administrazio publikoei eskatu ahal izango die laguntza tekniko bere egitekoak bete ahal izateko.

6. atala. – Idazkaritza.

Euskadiko Udal Kontseiluko idazkaritza-lana, Euskal Autonomi Elkarteke Administrazio Orokorreko Toki Erregimen arloan agintea duen organuak beteko du.

Idazkariak, idazkari denez, ez du izango botorik, baina bai hitz egiteko eskubidea.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa. – Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuak, Kontseilua eratze-batzarrerako deialdia egingo du dekretu hau indarrean jarri eta hiru hilabeteko epearen barruan. Lehendakariaren behin-betiko izendapena egin arte, sailburua izango da lehendakari.

Bigarrena. – Euskadiko Udal Kontseilurako, udalen lehenengo ordezkarien izendapena Euskadiko Udalen Elkarrean egingo du.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau, EHAAan argitara dadin egunaren biharramunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko uztailak 28.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lehendakaritza, Lege Araubide
eta Autonomi Garapenerako sailburua,
JOSEBA M. DE ZUBIA Y ATXAERANDIO.

Artículo 4. – Normas de funcionamiento.

1.– Las normas de funcionamiento serán establecidas por el propio Consejo.

2.– El Presidente del Consejo será elegido por dicho órgano de entre sus miembros por un período de dos años, prorrogables.

3.– La adopción de acuerdos en el Consejo Municipal de Euskadi, requerirá en cualquier caso el voto favorable de cada nivel institucional representado en el mismo.

El voto de cada nivel institucional resultará del voto de la mayoría de sus miembros.

Artículo 5. – Colaboración.

El Consejo Municipal de Euskadi podrá solicitar de las administraciones públicas en él representadas, la asistencia técnica necesaria para el cumplimiento de sus fines.

Artículo 6. – Secretaría.

La Secretaría del Consejo Municipal de Euskadi será desempeñada por el órgano competente en materia de Régimen Local de la Administración General de la Comunidad Autónoma.

Su titular, que actuará como Secretario, tendrá voz, pero no voto.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera. – El Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico, en el plazo de tres meses a partir de la entrada en vigor del presente Decreto, procederá a la convocatoria de la sesión constitutiva del Consejo, ostentando su presidencia en tanto se proceda a la elección definitiva de su presidente.

Segunda. – La designación de los primeros representantes de los municipios en el Consejo Municipal de Euskadi, corresponderá a Euskadiko Udalen Elkarrean Asociación de Municipios Vascos (E.U.D.E.L.).

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el B.O.P.V.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de julio de 1994.

EL Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico
y Desarrollo Autonómico,
JOSEBA M. DE ZUBIA Y ATXAERANDIO.